

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/07/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/07/2014



Organoa edo batzordea: Osoko bilkura.
Bilera-mota: ohikoa.
Eguna: 2014/07/29.
Ordua: Hasiera, 19:30.
Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzituñuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Javier Iraeta, EAJ.
Ane Urkiola Alustiza, EAJ
Aitor Madina Murua, EAJ.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.

Fernando Arakama Fernandez, kontu-
hartzaillea.
Iñaki Gastañares Sanchez, Idazkaria.

Ezin etorria adierazi dute:

Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.

Aztergaiak, esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2014-06-25eko akta onartzea.

Iradokizunik eta argibiderik gabe, akta aretoan dauden batzarkide guztien aho batez onartu da.

HIRIGINTZA:

2. Bidezkoa bada, Legazpiko katalogatutako hiri-ondarea zaintzeko eta babesteko Plan Bereziari aurkeztu zaizkion alegazioak onartzea, partzialki onartzea edo ezestea, horretarako Plana idatzi duen taldeak alegazioei erantzuteko egin duen txostenean jasotakoa aintzat hartuz.

Organo o comisión: Pleno.
Tipo de convocatoria: ordinario.
Día: 29/07/2014.
Hora: Comienzo, 19:30.
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Ariztimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Javier Iraeta, PNV.
Ane Urkiola Alustiza, PNV
Aitor Madina Murua, PNV.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.

Fernando Arakama Fernández, Interventor.
Iñaki Gastañares Sánchez, Secretario.

Excusan su asistencia:

Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.

Orden del Día, intervenciones y acuerdos:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión de 25-06-2014.

No habiendo sugerencias o aclaraciones el acta es aprobada por unanimidad de los miembros presentes en la sala.

URBANISMO:

2. Aprobación, si procede, de la estimación, estimación parcial o desestimación de las alegaciones presentadas al Plan Especial de Protección y Conservación del Patrimonio Urbanístico Catalogado de Legazpi, siguiendo al efecto el informe de respuesta a las alegaciones emitido por el equipo redactor del Plan.



Alkate jaunak batzordean onartutako irizpena irakurri du:

2014 uztailaren 22an egin den hirigintza batzordean honako dokumentua aurkeztu da: Legazpiko udalerriko Katalogatutako Hirigintza-ondarea Babesteko eta Zaintzeko Plan Berezia.

Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

1- Legazpiko katalogatutako hiri-ondarea zaintzeko eta babesteko Plan Bereziari aurkeztu zaizkion alegazioak onartzea, partzialki onartzea edo ezestea, horretarako Plana idatzi duen taldeak alegazioei erantzuteko egin duen txostenean jasotako aintzat hartuz.

2- Legazpiko katalogatutako hiri-ondarea zaintzeko eta babesteko Plan Berezia behin betiko onartzea, plana idatzi duen taldeak egindako txostenean jasotako proposamenak aintzat hartuz.

3- Plana idatzi duen taldeari hiru hilabeteko epea ematea planteatutako proposamenak bilduko dituen Planaren Testu Bateratua idatzi eta aurkez dezan.

Alkate jaunak prozesuaren historia egin du eta joan den 2013ko abenduan hasiera batean onartu zen Plan Berezia egiteko eman diren urratsak laburbildu ditu. Planak eragin handia izan zezakeela aurreikusten zen eta, ondorioz, alegazioak aurkezteko epea hiru hilabetera arte luzatu zen. Guztira 22 alegazio aurkeztu dira eta alegaziotzat hartu dira auzo desberdinetan egin diren bileretan jasotako aktak. Horrezaz gain, bilerak egin dira enprekin eta haiek egindako ekarpen batzuk ere jaso dira.

El Sr. Alcalde da lectura al dictamen de Comisión:

Se presenta ante la comisión de urbanismo del día 22 de julio de 2014 el Plan Especial de Protección y Conservación del Patrimonio Urbanístico Catalogado del municipio de Legazpi.

La Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1- Estimar, estimar parcialmente o desestimar las alegaciones presentadas al Plan Especial de Protección y Conservación del Patrimonio Urbanístico Catalogado de Legazpi, siguiendo al efecto el informe de respuesta a las alegaciones emitido por el equipo redactor del Plan.

2- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Protección y Conservación del Patrimonio Urbanístico Catalogado de Legazpi, recogiendo las propuestas planteadas en su informe por el equipo redactor.

3- Indicar al equipo redactor que deberá presentar en un plazo de tres meses un Texto Refundido del Plan en el que se recojan las propuestas planteadas.

El Sr. Alcalde hace un poco de historia del proceso por el que ha pasado la elaboración del Plan Especial hasta que en diciembre de 2013 se aprobó inicialmente. Por la incidencia que podía tener se amplió hasta tres meses el plazo de presentación de alegaciones. Han sido presentadas 22 alegaciones y también se ha considerado alegación las actas recogidas en las reuniones que se hicieron en los diferentes barrios. También se han hecho reuniones con las empresas y se han recogido algunas de sus aportaciones.



Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura departamentuak egin beharreko nahitaezko txostena jaso da eta bertan oso ondo baloratu da paisaia industrialá babestearena eta bi alderdi azpimarratu dira: batetik, babestutako elementuak ez daitezela eraitsi eta, bestetik, eraikinak handitzeko aukera balora dadila baina, hori bai, Plan Orokorak onartuko duenean.

Plana idatzi duen taldeak alegazioak eta Eusko Jaurlaritzaren txostena aztertu ditu eta uztaillaren hasieran erantzun xehatua prestatu zuen, hainbat kasutan alegazioa onartzea, besteetan partzialki onartzea eta beste hainbatetan ez onartzea proposatuz. Txosten hori zinegotzietan bidali zitzaizen eta batzordean aztertu zen.

Hasiera batean onartu zen dokumentuari dagokionez, honakoak dira sartu diren aldaketa garrantzitsuenak:

- eraikin batzuei babesa kendu zaie eta eraitsi egin ahalko dira baina eraikinaren dokumentazio-lan bat egin beharko da;
- dokumentutik elementu batzuk kendu dira (trikuharriak, haizeolak,...), haien gainean ezin izan delako informazio gehiago jaso;
- industriagunean unitate morfologikoa sortu da, fitxa partikularren ordean. Helburua paisaia industrialá babestea da, ez zelako derrigorrezkoa eraikin guztiak babestea;
- eta eraikigarritasuna handitzeko aukera aurreikusitako da, beti ere. Plan Orokorak onartuko duenean.

Onarpen honen ondoren, plana idatzi duen taldeak hori guztia jasoko duen Testu Bateratua aurkeztu beharko du hiru hilabeteko epean.

PSE-EE taldeko ordezkari Oscar Valbuenak Planaren hasierako onarpena atzeratuta

También se recibió el informe preceptivo del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco que valora positivamente la conservación del paisaje industrial e incide en dos aspectos: uno, que los elementos protegidos no se puedan demoler, y dos, que se valore la posibilidad de ampliación de edificios siempre, eso sí, que el Plan General lo permita.

El equipo redactor analizó las alegaciones y el informe del Gobierno Vasco y elaboró a principios de julio su respuesta pormenorizada, proponiendo la estimación de la alegación en unos casos, la estimación parcial en otros o la desestimación. Dicho informe se envió a los concejales y se analizó en Comisión.

Los cambios más importantes que se introducen con respecto al documento aprobado inicialmente son los siguientes:

- se quita la protección a algunos edificios y podrán demolerse pero deberá hacerse un trabajo de documentación del edificio;
- salen del documento algunos elementos (dólmenes, ferrerías de viento...) sobre los que no ha podido obtenerse más información;
- se crea una unidad morfológica, en lugar de fichas particulares, en la zona industrial con el fin de preservar el paisaje industrial pues no todos los edificios era necesario proteger;
- y se contempla la posibilidad de aumentos de edificabilidad siempre que el Plan General lo permita.

Tras esta aprobación, en el plazo de tres meses, el equipo redactor deberá presentar un Texto Refundido que recoja todo esto.

Oscar Valbuena por el PSE-EE hace mención en primer lugar al retraso que ha habido para la aprobación inicial del Plan; pese a ello valora positivamente las



etorri dela aipatu du lehenbizi; hala ere, positiboki baloratzen ditu auzokideekin egindako bilerak eta behin betiko onarpen honen aurretik gehiago egin behar zirela uste du. Bere taldea abstenitu egingo dela esan du, Eusko Jaurlaritzaren txostenean Kultura departamentuak behin betiko txostena egin behar duela esaten delako eta txosten hori ez dago. Unitate morfologikoetako auzokideekin irizpide arkitektonikoak adosteko ahalegina egin dadila eskatu du eta hainbat gaietarako diru-laguntzak eskaintzea proposatu du, hala nola, eraikinak berritzeko, eraginkortasun energetikoa lortzeko eta atarrietan segurtasuna hobetzeko.

Javier Iraetak EAJ taldearen izenean hartu du hitza eta bere taldea ere abstenitu egingo dela esan du, Eusko Jaurlaritzaren behin betiko txostena falta delako.

Idazkariak hartu du hitza eta, bere ustez, izapidetzea zuzena dela eta osatuta dagoela esan du, Lurzoruaren Legearen arabera ez gaudelako behartuta Eusko Jaurlaritzaren bigarren txostena jasotzera.

Alkateak hartu du hitza eta atzerapenik ez dagoela esan du. Kontuan hartu behar da taldea kontratatzeko lehiaketa 2013ko hasieran egin zela eta horrelako dokumentu bat idaztea oso zaila dela. Bestetik, alegazioak aurkezteko epea 20 egunetik hiru hilabetera pasatu da. Gaia auzokideekin adostea da asmoa eta horretarako bildu dira haiekin baina kontuan hartu behar da Udalak auzo-ikuspegia izan behar duela eta agian ezingo dela errebindikazio partikular guztiak eta bakoitza bete. Diru-laguntzei dagokienez, Administrazio guztien inplikazioa bilatuko da, baita Europarena ere eta eman daitezkeen laguntzak aztertuko dira hurrengo Ordenantza Fiskaletan. Horretarako eman da urrats hau.

Bildu taldearen aldeko botoekin eta EAJ,

reuniones con los vecinos y por eso debían haberse hecho más antes de esta aprobación definitiva. El voto de su grupo será la abstención porque en el informe del Gobierno Vasco se dice que el Departamento de Cultura debe emitir otro informe definitivo y este informe no está. Pide que se haga un esfuerzo para consensuar criterios arquitectónicos con los vecinos de las unidades morfológicas y propone que se abran líneas de ayudas dirigidas sobre todo a la rehabilitación, eficiencia energética y mejoras de la seguridad en portales.

Javier Iraeta por EAJ-PNV comenta que su grupo se abstendrá también por el hecho de que falta el informe definitivo del Gobierno Vasco.

Interviene el Secretario para señalar que, a su juicio, la tramitación es correcta y está completada pues de acuerdo con la Ley del Suelo no estamos obligados a recabar un segundo informe del Gobierno Vasco.

El Sr. Alcalde comenta que el retraso no es tal si se tiene en cuenta que se licitó la contratación del equipo a principios del 2013 y la complejidad que tiene redactar un documento así. Además el plazo para alegaciones se ha ampliado de 20 días a tres meses. Claro que la idea es consensuar con los vecinos y para eso se han reunido con ellos, pero hay que tener en cuenta que el Ayuntamiento tiene que tener una perspectiva de barrio y quizá no se pueda atender todas y cada una de las reivindicaciones particulares. En cuanto a las ayudas se buscará la implicación de todas las Administraciones, incluso Europa, y se analizarán las posibles ayudas en las próximas Ordenanzas Fiscales. Para eso se ha dado este paso.

Con los votos a favor de Bildu y la abstención de EAJ-PNV, PSE-EE y

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/07/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/07/2014



PSE-EE eta Hamaikabat taldeen abstentzioarekin onartu egin da plana idatzi duen taldearen arabera alegazioei eman zaien erantzuna.

Hamaikabat, es aprobada la respuesta a las alegaciones conforme al informe del equipo redactor.

3. Bidezkoa bada, Legazpiko katalogatutako hiri-ondarea zaintzeko eta babesteko Plan Berezia behin betiko onartzea.

Bildu taldearen aldeko botoekin eta EAJ, PSE-EE eta Hamaikabat taldeen abstentzioarekin behin betiko onartu da batetik Plan Berezia eta, bestetik, plana idatzi duen taldeari hiru hilabeteko epean Testu Bateratua egin dezala eskatzea.

3. Aprobación definitiva, si procede, del Plan Especial de Protección y Conservación del Patrimonio Urbanístico Catalogado de Legazpi.

Con los votos a favor de Bildu y la abstención de EAJ-PNV, PSE-EE y Hamaikabat, es aprobado definitivamente el Plan Especial y la indicación al equipo redactor de elaborar un Texto Refundido en el plazo de tres meses.

GIZARTE ZERBITZUAK:

4. Bidezkoa bada, etxe etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza teknikoen agiriak onartzea.

Lurdes Ugarte zinegotziak batzordearen irizpena irakurri du:

2014ko uztailaren 9an Gizarte Ongizateko batzordean aztertutako gaiak direla eta honako hau proposatzen da:

IRIZPENA

1. Etxe Etxeko Laguntza zerbitzuaren esleipena arautuko duen baldintza teknikoen agiria onartzea, baita aipatutako zerbitzua arautuko duen administrazio-baldintza zehatzen agiria ere.

2. Agiriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Alkateari baimena ematea, Agiriaren 20. klausulan aurreikusitako dokumentazioa eska dezan eta kontratua sina dezan.

SERVICIOS SOCIALES:

4. Aprobación, si procede, del pliego de cláusulas administrativas y técnicas para la contratación del servicio de ayuda a domicilio.

Lurdes Ugarte da lectura al dictamen de Comisión:

A la vista de lo tratado en la Comisión de Servicios Sociales celebrada el 9 de julio de 2014, se propone el siguiente:

DICTAMEN:

1. Aprobar el Pliego de Cláusulas técnicas para la adjudicación del servicio de Ayuda Domiciliaria, así como el Pliego de Cláusulas administrativas que regirán en esta contratación.

2. Publicar el anuncio de los Pliegos en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3. Facultar al alcalde para que haga el requerimiento de la documentación prevista en la cláusula 20 de los pliegos, así como para la formalización del contrato.



Segidan, zerbitzuaren ezaugarriak adierazi ditu, erabiltzaileak jaso dezakeen gehieneko eta gutxieneko ordu-kopurua, zerbitzuaren prezioa (18,80 € lanegunetan eta 22,60 € igande eta jaiegunetan), 2013an egindako ordu-kopurua azaldu du eta kontratua bi urtetarako sinatuko dela eta, gehienez, 4 urtera arte luzatu ahal izango dela jakinarazi du. Baloratzeko erabiliko diren irizpideak zehaztu ditu eta bakoitzari emango zaion puntuazioa esan du. Horrezaz gain, enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko ditu oraingo langileak eta bete beharko dituen beste kontu batzuk jasotzen direla esan du.

Oscar Valbuenak PSE-EE taldearen izenean hartu du hitza eta bere taldeak aldeko botoa emango duela iragarri du. Pozten da egunean jaso daitekeen ordu-kopurua igo egin delako, hasieran bi ordu besterik ez zirelako. Batzordean udal zerbitzu hau bultzatzeko aukerak azter daitezela eskatu du.

Lurdes Ugartek adierazi du ordu-kopuru batetik aurrera beste zerbitzu mota bat izan daitekeela beharrezkoa baina, momentuz, hiru ordu jasotzeko aukera mantendu da.

Alkate jaunak orduen gaia batzordean eztabaidatu dela esan du eta hasierako proposamena azkeneko urteotan ez delako 3 orduko zerbitzua jasotzeko eskaririk egin zen. Dena den, azkenean aukera hori mantentzea egokia izan daitekeela pentsatu da. Azkeneko urteotan zerbitzuaren eskaria jaitsi egin da eta horrek eragina du langileengan. Egia da gaiaz hausnartu beharra dagoela baina Udalak zerbitzu zehatz honen aldeko apustua egiten jarraitzen du eta horregatik eskaini zaio aurrekontu handiagoa; era berean, gainerako gizarte zerbitzuen alde ere egiten du.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu dira aipatu zerbitzua kontratatzeko Agiriak.

A continuación explica las características del servicio, número de horas máximas y mínimas que puede recibir el usuario, precio del servicio 18,80 € en días laborables y 22,60 € en domingos y festivos, indica el número de horas ejecutadas en 2013 y comenta que el contrato se firmará por dos años con posibilidad de prórroga hasta un máximo de 4. Indica los criterios objetivos de valoración y la puntuación asignada a cada uno. Se contempla la subrogación de los trabajadores y otros aspectos que deberá cumplir la empresa adjudicataria.

Oscar Valbuena por el PSE-EE anuncia el voto favorable de su grupo y se congratula que se haya rectificado el tema del número de horas máximas que se podían recibir al día pues en una primera versión sólo eran dos horas. Pide abrir una reflexión en el seno de la Comisión para ver cómo se puede impulsar este servicio municipal.

Lurdes Ugarte comenta que es posible que a partir de cierto número de horas se haga necesario otro tipo de servicio pero, de momento, se ha mantenido la posibilidad de las tres horas.

El Sr. Alcalde comenta que el tema de las horas se ha debatido en Comisión y que la propuesta inicial vino fundamentada en que en los últimos años no han habido peticiones de prestación de 3 horas de servicio. No obstante al final se ha considerado oportuno mantener esa posibilidad. Señala que en los últimos años ha descendido la demanda del servicio lo que repercute en las trabajadoras. Ciertamente hay que hacer una reflexión pero el Ayuntamiento sigue apostando por este servicio en concreto, que lo ha dotado con mayor presupuesto, y por el resto de servicios sociales.

Sometida a votación la propuesta de aprobación de los Pliegos de Contratación es aprobada por unanimidad.



MERKATARITZA:

5. Bidezkoa bada, merkataritza-guneak biziberritzeko programa martxan jartzea onartzea eta, horretarako, ILINTI elkartearekin sinatzea proposatzen den hitzarmena onartzea.

Bildu taldeko Rakel Puentek batzordearen irizpena irakurri du:

2014-07-22an egin den Industria, Enplegu eta Merkataritza batzordearen ohiko bileran hau adostu dute:

Legazpiko merkataritza-guneak susper-tzeko Ilinti dendarien elkarteak eta Legazpiko Udalak sinatuko duten Hitzarmena onartzeko proposamena onar dezala proposatzea Udal Batzarrari.

“Dendak Aktibatu” proiektuak 4 helburu nagusi ditu: merkataritza-guneak suspertzen laguntzea; hutsik dauden merkataritza-lokalei erabilera bat ematea; lokal horiek dinamizatzea eta merkatarien arteko etena saihestea.

Orain bi gune nagusi finkatu dira, Kale Nagusia eta kale paraleloak eta Laubideko oinezkoen kalea, baina gero beste gune batzuetara zabaldu daiteke. Une honetan 6 lokal daude proiekturako.

Proiektuaren helburua hutsik dauden lokalen erakusleihoak erabiltzea da beste merkataritza batek bere produktuak bertan erakutsi ditzan edo udal informazioa emateko.

Proiektuan Udalak, Ilinti merkatarien elkarteak, hutsik dauden lokalen jabeek eta dendariak hartzen dute parte. Dendariak Ilinti elkarteko kide izango dira eta hutsik dagoen lokalaren erakusleioa erabili nahi dutenak izango dira.

Segidan, alderdi bakoitzak hartzen dituen konpromisoak azaldu dira eta merkataritza-

COMERCIO:

5. Aprobación, si procede, de la puesta en marcha del programa de revitalización de zonas comerciales y aprobación del convenio a suscribir con ILINTI.

Rakel Puente por Bildu da lectura al dictamen de Comisión:

En la reunión de la Comisión ordinaria de Industria, Empleo y Comercio celebrada el 22-07-2014 se ha acordado:

Proponer al Pleno la aprobación del Convenio entre la asociación de comerciantes Ilinti y el Ayuntamiento de Legazpi para dinamización de zonas comerciales de Legazpi.

Señala que el proyecto “Dendak Aktibatu” cuenta con 4 objetivos principales: ayudar a la reactivación de las zonas comerciales; dar un uso a los locales comerciales vacíos; dinamizar esos locales; evitar la discontinuidad entre los comercios.

Se han fijado ahora dos zonas principales, aunque luego se extienda a otras, que son Kale Nagusia y sus paralelas y la peatonal de Laubide. En este momento se contaría con 6 locales para el proyecto.

El proyecto en sí consiste en poder dar un uso a los escaparates de los locales vacíos para que otro comerciante lo utilice para mostrar sus productos, o, incluso, para ser utilizado para dar información municipal.

En el proyecto toman parte el Ayuntamiento, la Asociación Ilinti, los propietarios de los locales vacíos y los comerciantes – que tienen que ser socios de Ilinti – que quieran utilizar el escaparate del local vacío.

A continuación expone los compromisos que adquiere cada parte y lo que se trata de conseguir, como se ha dicho es la



guneak suspertzea da lortu nahi dena.

Lokalen jabeekin sinatuko den hitzarmena urtebeterako izango da eta Udalak bere gain hartuko ditu lokalaren gastuak.

Ilinti merkatarien elkarteak izango da bere bazkideen artean gaia koordinatuko duena. Dendariak ezingo dute lokal horietan euren merkataritza-jarduera gauzatu eta egingo duten gauza bakarrik erakusleirioa erabiltzea izango da euren produktuak erakusteko. Dendariak argindarraren kostua hartuko dute euren gain (Udalak fakturatuko dio kostu hori beraiek BEZa aitortzeko aukera izan dezaten).

Proiektua aurrera eramateko 8.950,00 €ko partida dago.

Jarraian, lokalen jabeekin eta Ilinti elkartearekin sinatuko liratekeen hitzarmenen xehetasunak eman ditu.

EAJ taldeko ordezkari Ane Urkiolak bere taldeak aldeko botoa emango duela esan du. Oso ondo iruditzen zaië ekimena baina neurria pasiboa dela uste dute, hau da, hutsik dauden lokalei erabilera bat ematera mugatzen da. Dinamizatzeko eta suspertzeko proiektu bat merkataritza-jarduera bera sustatzeko neurri aktiboekin osatu beharko litzatekeela uste dute. Lokalei irtenbide hori ematea ondo dago baina merkataritza-jarduera berdina izaten jarraituko da.

Rakel Puentek esan duena ulertzen duela erantzun du baina hau lehenengo fase bat izango da eta helburua dendarien kezka den merkataritza-etena saihestea da. Ondorengo fase batean merkataritza-jarduera bera suspertzeko neurriak hartzen saiatuko dira.

Javier Iraetak egin duen galderari erantzunez, hasiera batean Ilinti elkarteko kideek izango dutela lokala erabiltzeko lehentasuna adierazi da baina bestelako

revitalización de la zona comercial.

El convenio con los propietarios de locales sería por un año y el Ayuntamiento asumiría los gastos del local.

La Asociación Ilinti será la encargada de la coordinación entre sus socios para el uso de los locales vacíos. Los comerciantes no podrán llevar a cabo su actividad comercial en el local vacío sino sólo usar el escaparate para mostrar sus productos, y asumen la obligación de abonar el coste de la electricidad, nada más (que le facturará el Ayuntamiento para que ellos puedan declarar el IVA).

Se cuenta para llevar adelante el proyecto con una partida de 8.950,00 €.

Da detalles a continuación de los convenios que se suscribirían con los propietarios de los locales y con Ilinti.

Ane Urkiola por EAJ-PNV comenta que su grupo votará a favor porque le parece bien la iniciativa pero comenta que la medida es simplemente pasiva, esto es, se limita a dar un uso a los escaparates de unos locales vacíos. Considera que un proyecto de dinamización y revitalización como dice el título debe ir complementado con medidas activas dirigidas a revitalizar la propia actividad comercial en sí. Con esa salida para los locales, que está bien, la actividad comercial será la misma.

Rakel Puente comenta que entiende lo que dice pero señala que esto es una primera fase para tratar de evitar la discontinuidad comercial que tanto preocupa a los comerciantes, En una fase posterior se tratará de tomar medidas para revitalizar la propia actividad comercial.

A pregunta de Javier Iraetea aclara que, en principio, en el uso tienen preferencia los

2014/07/29



LEGAZPIKO
UDALA

29/07/2014



eskariak aurkezten badira, horiek ere kontuan hartu beharko dira.

Alkate jaunak urtean zehar merkataritzaren alde hainbat ekimen egiten direla eta hau horietako beste bat dela adierazi du. Helburua, jendeak azalera handiko dendetara joateko duen ohitura aldatzea da. Edozein ekimen izango da ona denda txikiak laguntzeko.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA:

6. Bidezkoa bada, zinegotzi bati dedikazio partziala esleitzeko eta bi zinegotziek zuten dedikazio partziala bertan behera uzteko proposamena onartzea.

Alkate jaunak batzordearen irizpena irakurri du:

2014ko uztailaren 23ko Barne-araudia, antolaketa eta funtzionamendu batzordeak honako irizpena eman du:

IRIZPENA

1.- Joan den 2012ko otsailaren 29ko Osoko Bilkuran hartutako akordioa aldatzea onartzea, Sagrario Etxabe eta Lurdes Ugarte zinegotzietatik bakoitzari onartutako % 20ko dedikazio partziala kenduz eta Rakel Puente zinegotziari % 40ko dedikazio partziala onartuz eta, era berean, Udaltzainaren 16. mailari dagokion hileko ordainsaria ezarri. Modu berean, aipatu zinegotziak ez du ordainsaririk jasoko partaide den korporazioko organo kolegiatuaren bileretan parte hartzeagatik.

2.- Erabaki honek 2014ko abuztuaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

socios de llinti, pero que si hay otras peticiones habrá que analizarlas.

El Sr. Alcalde comenta que esta iniciativa se suma a otras que a favor del comercio se hacen a lo largo del año, con el fin de conseguir cambiar la tendencia de la gente de dirigirse a las grandes superficies. Cualquier iniciativa será buena para tratar de ayudar al pequeño comercio.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO:

6. Aprobación, si procede, de la asignación de dedicación parcial a concejala y supresión de las dedicaciones parciales de dos concejalas.

El Sr. Alcalde da lectura al dictamen de Comisión:

La Comisión de Régimen Interior, Organización y Funcionamiento, celebrada el día 23 de julio de 2014 emite el siguiente:

DICTAMEN

1.- Aprobar la modificación del acuerdo del Pleno de 29-02-2012 suprimiendo la dedicación parcial del 20% de cada una de las concejalas Sagrario Etxabe y Lurdes Ugarte, y aprobar la dedicación parcial de un 40% a la concejala Rakel Puente, así como, establecer su retribución mensual en el nivel 16 de Udaltzain. Así mismo, esta concejala no percibirá ningún tipo de remuneración por asistencia a las sesiones de los órganos colegiados de la corporación de los que forme parte.

2.- Acordar otorgar efectos a este acuerdo desde la fecha 1 de agosto de 2014.



Proposamen honek gobernu taldearen antolaketa berri bati erantzun nahi diola esan du. Horrela, Rakel Puentek denbora gehiago dedikatuko dio merkataritza gaiari eta, horrezaz gain, Sagrario eta Lurdes zinegotziei euren eginkizunetan lagunduko die.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, Bildu taldearen aldeko botoekin, Hamaikabat eta PSE-EE taldeen aurkako botoekin eta EAJ taldearen abstentzioarekin onartu da.

OGASUNA:

7. Bidezkoa bada, 2013. ekitaldiko Kontu-Orokorra onartzea.

Alkate jaunak batzordearen irizpena irakurri du:

"Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokierakundearen aurrekontuei buruz abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluetan, Toki-Ogasunak arautzeko abenduaren 28ko 39/88 Legearen 193. artikuluekin bat etorriz, Alkatelehendakariak gertatutako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen Kontuen Batzorde Berezira eramango dela jasotzen da.

Kontu Orokorra, aurreko idatz-zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, eragozpenak zein oharra aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.

Txosten hori, interesdunek aurkeztutako erreklamazioekin eta eragozpenekin batera, Udal Korporazioaren Osoko Bilkurara eramango da martxoaren 25eko 9/91 Foru

Comenta que la propuesta obedece a una nueva organización del equipo de gobierno, en el que Rakel Puente, como se ha dicho antes, va a dedicar más tiempo al tema de Comercio y además ayudará en sus funciones a Sagrario y Lurdes.

Sometida a votación la propuesta es aprobada con los votos a favor de Bildu, el voto en contra de Hamaikabat y PSE-EE y la abstención de EAJ-PNV.

HACIENDA:

7. Aprobación, si procede, de la Cuenta General del ejercicio 2013.

El Sr. Alcalde da lectura al dictamen de Comisión:

"Disponen los arts. 62 y 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa en concordancia con el art. 193 de la Ley 39/88, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales, que la Cuenta General formada por el Alcalde-Presidente será sometida a la Comisión Especial de Cuentas antes del 15 de mayo del ejercicio siguiente.

Dicha Cuenta con el Informe de la Comisión Especial, será expuesta al público por plazo de 15 días naturales, durante los cuales los interesados podrán presentar reclamaciones, reparos y observaciones. Examinados estos por la Comisión Especial y practicadas las comprobaciones necesarias, se emitirá nuevo informe.

Dicho informe acompañado en su caso de las reclamaciones y reparos formulados por los interesados, se someterá al Pleno de la Corporación que de acuerdo con el art. 63.4